

HIZKUNTZA, PENTSAKERA ETA HERRIKIDETASUNA

LARRESORO BAITAN

Larresororen Hizkuntza eta Pentsakera, Etor 1972, obraren ikasketara igarotzerako, autore bera Txillardegi zaneke. Hizkuntza eta Pentsakera, eta Hizkuntza eta Herrikidetasuna, Branka 1-an eta 2-an argitaratutako artikulua bi aztertu nahi dugu.

Hizkuntza eta gizona

"Gizona jaiotzen* danean, legezko mundu batean edo bestean jaiotzen da... Alde batetik hizkuntza, ez dago pertsonaren eskuetan, ez da bere meneko : gizonarengandik at bilakatzen da" (1) Dударик ez, gizon konkretoari bilakaera osoak alde egiten diola. Halere, hizkuntza ez da gizonarengandik at bilakatzen hots, gizarte bateko gizon guztietatik kanpo. Hizkuntza gizonekin sortu da eta gizonek bilakatzen dute. Ez da basoko* onto baten antzera gizonen interbentzio-tik at dagoen zerbait. Eta akats* hau Txillardegi'ren obraren luzaro guztian agertzen den konstante bat da. Honela autoreak digu : "lehenago artikuluan, barnetik aztertu dugu hizkuntzaren muina : alegia, ez hiztunaren iritzi sub-jetiboan arabera, hiztunari hizkuntzak erasten dion ikuskera objetibo eta bereziaren arabera baizik" (2) Hizkuntzaren azterketan zilegi* da noski, egungo hiztunari gizaldien zehar bilakatu den hizkuntza batek mugatzen dion mundu ikuskera neurtzea. Ez dago dudarik ere, euskaraz gaur egun euskal hiztun bes-terik ez denari eta erdera edozeinek bere hiztunari ematen dieten mundu ikus-kerak eta neurria ezberdinak direla. Honela, gure euskarak batik bat artzantza bizi-bide zuen euskal gizonaren eta lurlangintza zuenaren mundu ikuskera agertzen digu bere barne azterketara mugatzen bagara. Industria munduko euskal gizo-naren ikuskera guti ematen digu egungo euskararen barne azterketak. Bestalde euskarak, euskal gizonen gure gizartea egungo estadiora ekartzean izandako bor-roka, istilu, buruhauste, hitz batean, euskal historiaren ikuskera hau, beste erdera batek daraman historia ikuskeratik ezberdin izango da noski. Orduan hizkuntza bakoitzak ba du bere forma berezitasunaz gain barne kontentidu berezi bat ere. Baina barne kontentidu hori gizonen egintza da, eta, gizartea klaseetan bereiztu danez gero, klase kontentidu kontradiktorioena ere bai, noski.

2 berri erakutsiko digu bere barne azterketan. Eta euskarak beregan duan historia

Oraindainokoa esan dugunez, gizonak egiten du hizkuntza, baina ez du benturaz egiten baizik beharrez. Eta egoki dio hau Txillardegik : "hizkuntza ari direla" (3) Edo eta beste pasarte batetan dionean : "hizkuntzaren bereziat-sun edo jatortasun hori Herriak eman dio librok" (4) Orduan, hiztunari hizkunt-zak erasten dion ikuskera objetiboaren alboan hiztunak hizkuntzari erasten dion kontentidu objetiboaz hitz egin behar da baldin osoki agertu nahi badugu hizkunt-za eta gizonaren arteko har-emanak.

3 guziak, guziak eta beti, giza-esperientziaren kosmo berberari buruz

HIZKUNTZA ETA KLASEAK

Hizkuntza gizonen edo herriek egiten dutela aitortzea ez da aski. Zeren gizartearen lehen akumulazioaz gero gizonak eta herriak klaseetan zatitu bait dire. Eta geroztiko giza hizkuntzak errealidade hau funtsezko dute. Eta baiezkuntza hau nolabait ere Txillardegik konstatatzen du "Hizkuntzei buruzko fenomenu hauetan, ekonomiazko edo klasezko gorabeherarik erroetan ote dagoen azter ditek ; aztertu egin behar da... Edozein eskualdetan hizkuntza-aldaketa bat gertatzen danean, ba dago horrelakorik : nagusitzen den hizkuntza, nagusi dan klasearen hizkuntza baita (nagusitzen diran ideiak, nagusi dan klasearen ideiak diran bezelaxe) (5) Baina guzi hau nolabaiteko baiezkuntza da, zeren lehenik, klase gorabeherak ekonomiazkoak azken funtsean ba-dire ere, hoietara ez direla mugatzen esan behar bait da. Klase gorabeherak politika, kultura, hizkuntza, instituzio, hitz batean, giza jokabidearen arlo guzietan ematen bait dire. Eta guzi hauetan ematen diranez, guzi hauetako gorabeherak ere bait dira. Bigarrenik, guzi hontatik Txillardegik ateratzen duen ondorioaren formulazioa biziotsu deritzaigu : "horrela etnia-liferentziari, klaseena erasten* zaio ; berak aitortzen

etnia saltzen baitute bertako agintariek" (6) Bai, biziotsu deritzaigu, zeren klase inzidentzia ez da eraskizun bat, aitzitik gizarte osoaren zimendarrien birberritze bat. Honela, klaseek esistentzia duten gizarte guziak beren erre- alidade guzian klase borrokez modu batera edo bestera determinatuak geldituko dire. Eta etnia erre- alidade bereko elementu bilagarriak ere, hots, giza-egint- zara eskeiniak dagoezenak, hizkuntzaren kasoan bezala, klase determinazio hortaz mugatuak agertuko zaizkigu. Orduan, faltsua da, etnia eta klaseak, bakoitzak berea duen kanpo berezi eta bakarrez definitutako bikote bezala erre- presentat- zea. Bata eta beste, erre- alidade bereko konposante izanik, komuntasunez eta berezitasunez edo espezifikotasunez moldaturikako baizik ez bait dire. Bikoiz- tasunari leku ematen badiogu batik bat pentsemenduan da, hots, analisi bateta- rako medio bezala, eta noski etnia deritzan erre- alidade hortako elementuek klase inzidentzian espezifikotasunik dutelako.

Klaseekiko gizarteak giza-konzentrazio berezi bat suposatzen du le- hen unetik eta honela orduarteko hizkuntza diferentziak nahasmendu batetan sartzen dire. Honekin bat ere klase indartsuenek podere bat kreatuko dute. Sortu berria den gizarte honen haunditasunak eta klase diferentziak eskaturik ordena batetara guzi hau bihurtzeko. Aberatsek neurtu eta kontrolatuko ordena noski. Geroago aberastasunaren hedatzeak berak muga berriak eskatuko ditu eta guzi honetan hizkuntzen aldaketak muin muinean dagoz. Politikak hizkuntzarekin duen zerikusira ailegatzen gara.

HIZKUNTZA ETA POLITIKA

"Politikazko menpetasuna soziologiaren maillan jakatu ohi da, zahar- rakaera-gertakari askoren egokieran. Sustraiak ekonomian eta demografian, tek- nikan eta gogo-ahultasunean, herrien funtsezko indar-oinarrietan, aurki ditezke. Agerian, politikazko menpetasuna* sortzen da aurrenik ; kulturazko menpetasuna*, politikazkoari darraikio" (7) Nahiz politikaren sorreran hizkuntzari buruzko jokabide konziante bat ez egon, hizkuntzaren poderedunen arabera aldatzen da. Geroago ordea, hizkuntzari buruzko jokabidea ohartun izatera igaroko da. "Erre- suma modernoetan batez ere, erresumak egun duen ahala lehen baino haundiagoa izaki, hizkuntzari buruzko gorabeherak sakonki ohi dituzte istudiatu, zapalt- zaille gertatzen diran erresuma-gobernariak : gaurko egunetan ba dago berriazko hizkuntza-politika sendo eta zindo bat. Bainan ez da agertu ohi" (8) Hau hor- rela da: Herriak, gure euskararen azken garantzia politikazko podere batetan dagoela ondorioztatzea ez da batere gaizki. Honetan dudarik ere ez dago, autoreak eta bere uhineko* burkideak* euskara gizarte-egintzarako elementu sakonena bezala, etniako elementu guzien artetik aukeratzean, arazoari erdiz erdi erantzun diotela. Izan ere, euskotar-abertzaleek eta euskotar-asimilazionistek arazo honi tradizionalki ematen zioten erantzunari jarraitu izan bagenion euskaldunen hizkuntzaz eta kulturaz gehiago hitzegiteko motiburik ez bait genuen izango. Euskotar-abertzale hauek ondoko molde honetan judikatzen bait zuten : "hizkuntza galduta ere, gure ohi burak, gure folklorea, gure izakera, gure pelota-jokoa hor gelditzen dira : " edo eta euskotar-asimilazionistek "herriak ez dago, klaseak daude soilik. Hizkuntzen gora-beherak Kapitalistek asmatutako sasi-problema dira" (9) Halere, Txillardegik euskarari ematen dion balorea herri arazoari dagokionean ez da guziz zuzena. Honela dio : "Abertzaletasuna nahiaren maillan gertatzen da, eta hizkuntzak ez du nahia gidatzen. Euskalduntasuna, aldiz, naziotasuna, Herriaren maillan dago, nahimenetik at ; izaeraren beraren zimendu baita". (10)

Abertzaletasun-euskotarra esentzialista denez hizkuntzari dagokio- nean nahiaren maillan dagoela dionean arrazoi du. Baina euskalduntasuna eta naziotasuna lotzean abertzaletasunaren beretako kontenidua gutxitzen du. Izan ere abertzaletasun-euskaldunaren kontenidua euskarara eta euskal kulturara ez bait da mugatzen, euskaldun-asimilazionistek nahi luteken eran. Abertzale- tasun-euskaldunaren kontenidua, ekonomiazko erre- alidaderik ere ba du. Egun Euskal Herriaren bi aldeetan dagoen ezberdintasun ekonomiakoren soluzio ardatza abertzaletasun- (1) politikazko administrazio autoktonoa bere kontenidu duela. Euskararen instituzionalizatzea bi podere hauek gabe erreus* baita. Ze- ren euskarak egun Euskal Herrian dagoezen beste hizkuntzek duten berdintasun ekonomikoa eta politikoa ez baditu, euskararen berdintasunerako eskubidea (1) euskaldunaren baitan bait dago. Zer esanik ez, abertzaletasun-euskaldunak

nahiz legezko bihurtu, gezurti eta ilusiotsu besterik ez baita. Euskarak berdintasun praktikoa behar du : eta hori euskal administrazio auktotonoak bakarrik garantiza dezake. Hemendik, Euskal Herriak "ogia eta euskara" behar dituela diotenek abertzaletasunaren kontentu erreduzitzen dutela. Izan ere, ogiaz langile interesen beharrak sinbolitzen dire, ontsa dena, baina "euskaraz" abertzale interesen erreduzio ohartun bat egiten baita, hots, abertzaletasuna eukarara mugatzen baita. Honelako euskaldun-asimilazionistei Txillardegiren esaerak logika bidea jartzen dienez akatsa gertatzen da. Txillardegiren esaerak logika bidea jartzen dienez akatsa gertatzen da. Guzi honek hizkuntzak eta instituzioak duten haremanaren aitxinean jarriko gaitu.

HIZKUNTZA ETA INSTITUZIOAK

Podere politiko edozeinen ezaugarria, borrokako programaren instituzioalizazioan datza. Honela, iraultza bat instituzionalizatzean bakarrik legalizatzen da. Halere, iraultza baten bilakakeran zenbait errealdade instituzionalizatzen hasten da. Gainera; hori bera da iraultzaren aurrerapenaren seinale. Egun, esate baterako, euskal ikastolak, daramagun euskal iraultzaren fruitu dire. Eta beroietan euskal hizkuntzaren instituzionalizatzea agertzen da. Izan ere, Txillardegik dionean "gizarte-egintza den aldetik, hizkuntza instituzio hutsa da" (11) ez da egia osoa. Instituzioa eta legalidadea har-eman hertsian dagoenez, legalizatzean bakarrik hizkuntza instituzionalizatzen baita. Eta denok dakigu Euskal Herrian, Hego alde ari dagokionean behintzat, Primo de Rivera'ren diktaduran eta Franco'renean, euskara hitzegitea ere debekatua izan dela zenbait aldiz. Orduan jakina da, une*hortan euskara instituzio etzela. Nahiz eta etnia osotzen duten konposanteen artean instituzio gai azkarrena izaten jarraitu. Are gehiago, etniako instituzio gai bakarra. Zeren arraza ezin liteke instituzio bihurtu eta ezta gaineatiko konposanteak ere. Zilegi da beraz "hizkuntza dala erresumaren instituzio nagusia eta sustraizkoa" (12) ondorioztea.

HIZKUNTZA : NAZIO ARIMA

"Euskara hilko balitz, Euskal Herriak bere izakera berezia, bere jitea, bere jatortasuna, bere nortasuna, bere euskalduntasuna, bere nazio arima osoa hitz batez, galduko lukeala" (13) Zilegi da hizkuntza hegi honetatik begiratzea. Dudarik ez dago ere Euskal Herria beste herrietatik garbier berizten duena bere hizkuntza dala. Euskaldun kultura idatzia ere euskarak determinatzen du eta euskal espezifikotasunari dagokionean. Euskaraz ez den kultura idatzia Euskal Herrian euskotarren kultura edo euskotar kultura deitu behar litzake. Halere, Txillardegi baitan aurkitzen dugun nazio arima konzeptuaren kontentua zertan dagoen, ez da erreza neurtzeko. Hori agertu nahirik edo berak estrukturalismari deitzen dio. Ara nola dion : "hizkuntzak ez dira neholaz ere logika'ren seme. Eta horregatik hizkuntzaren oinarria, hizkuntzen "estruktura"; liferenteak dira". (14) Eta aitxinagora joanaz ; "Hitz batek, beraz, ba ditu bi aurpegi : hots-mordoa, soinu-segida, fonetikari dagokionean ; eta adierazkia, adierazten dana, semantikari dagokiona" (15) Guzi honi ohar zenbait ezarri nahi dizkiogu. Logika'ren ez izateak, ez du esan nahi benturaren seme dela. Estrukturalismuak baztertzen duena, logika linealtasunez hizkuntza esplikatzen dutenen iritzia baita. Orduan, ez da logika, kritikatzeko dena, linealtasuna baizik. Estrukturalismak ere logika bait du. Estrukturalisma ezin neurtu ahalako zerbait tapatzeko mediotzat erabiltzea ez da serioa. Oraino harrigarriago da bide hori, nazio-arimatasuna agertzeko erabiltzea. Jean Duvignaud bere "Anthologie des sociologues français contemporains" dalakoan egungo estrukturalista ezagunenaren jakabidea ondoko molde honetan agertzen digunean : "Azken funtsean, Levi-Strauss-en sozial erreflesioa, "naturara" eta "arrazoira" errekurritu gabe esturturen edo sistimen konposante diren sinboloen aniztasuna esplikatzeke erabiltzen duen materialismo hurbilkor bat bezala hartu behar lizake." Hizkuntzaren arimatasuna agertu nahirik ere beste konzeptu bat ekarriko digu Txillardegik : "Hizkuntza olerkia da, ez zientzia. Olerkigintza hortan herri oso batek hartu du parte, mendeetan zehar, klasetan zehar : ideiak zatikatuz, eta mundua herriaren irudimenaren arabera piskanaka hizkuntza bihurtuaz". (16)

Olerkia eta zientziaren artean ez dugu uste kontradikziorik dagoenik. Olerkigintzak eta zientzia esatogintzak metodo ezberdinak dituztela esan nahi bada, besterik da. Egun munduan dugun filosofo ezagunenaren aburuz, hots, Heidegger'enez, metafisikaren gailurra olerkigintza da. Bego guzi hau honetan ! Ikusten duguna zera da : logika ez den estrukturaren eta zientzia ez den olerkiaren bidez, hizkuntza den nazio-arima aiderazi nahi digula Txillardegik. Gauza gaitza idealisman, animisman eta sinismenean sinisten ez duen batentzat. Eta paradoja ederra behin eta berriz euskaldun gazteri ezkertiarra sinismena medio kritikatzan duen batentzat !

BEGIKO

(1)	Ikus, Branka, 2, 9'en orrialdean.
(2)	" " 2 2'eg "
(3)	" " 1 40'en "
(4)	" " 1 53'en "
(5)	" " 2 7'en "
(6)	" " 2 7'en "
(7)	" " 1 35'en "
(8)	" " 1 35'en "
(9)	" " 1 38'en "
(10)	" " 2 2'en "
(11)	" " 2 9'en "
(12)	" " 2 10'en "
(13)	" " 1 56'en "
(14)	" " 1 44'en "
(15)	" " 1 44'en "
(16)	1 40'en "

hiztegi :

basoa	:	larrea
akatsa	:	hutsa-falta
zilegi	:	egin ditekeana
erasten	:	lotzen
menpe	:	aginpe-indarpe
uhin	:	uhain-itsatsoko ur kolpea
une	:	denbora - iraupe laburra